

ko dira, dekretu honetako 2. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

2.- Baimena eskatzean aurkeztutako dokumentazioan Dekretu honetan eskatutako agiri guztiak jasoko ez balira, edo agiri horiek Dekretuan adierazitako baldintzak beteko ez balituzte, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastegiko titularrarengana joko luke hutsune hori zuzendu dezan, dekretu honetako 2.7. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta ondorioekin.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko irailaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

KULTURA SAILA

Zk-4173

343/1999, DEKRETUA, urriaren 5ekoa, Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko Dekretuaren laugarren aldaketa egiteko dena.

Euskararen Aholku Batzordea eraldatu eta osakera berria emateko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren bitartez hasitako bidean, garrantzizkotzat jo da euskararen erabileraren normalkuntzan diharduten lagunen harremanetarako eta parte hartzeko organo moduan eratzea Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoa.

Hori horrela, komenigarri iritzi zaio hizkuntza-normalkuntzaren arlo desberdinetan diharduten pertsona ezagunen kopurua areagotzeari, dauden beharrei egoki erantzun ahal izateko.

Bestalde, Batzorde Osoko kideen izendapena Kultura sailburuaren Agindu bidez egingo da; ez da prozedura hori erabiliko Batzorde Osoan duten karguagatik dauden kideen kasuan. Gainera, kideak batzar gutietan izango direla bermatzeari begira, hainbat organok, erakundek eta entitatek ordezkoak izendatzeko aukera ezarri da.

resueltos en el plazo de cuatro meses desde la entrada en vigor de éste, en los términos previstos en el artículo 2 del presente Decreto.

2.- En el supuesto de que la documentación aportada al solicitar la autorización no incluyese la totalidad de los documentos exigidos en el presente Decreto, o no los incluyese en las condiciones en él establecidas, por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación se instará del titular del Centro para que sea subsanada, en los términos y con los efectos previstos en el artículo 2.7 del presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de septiembre de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Nº-4173

DECRETO 343/1999, de 5 de octubre, de cuarta modificación del Decreto de transformación del Consejo Asesor del Euskera.

En el proceso de transformación y nueva configuración del Consejo Asesor del Euskera, iniciado con el Decreto 156/1996, de 18 de junio, se ha revelado la importancia de constituir el Pleno en un órgano de encuentro y participación de cuantos sujetos participan en la labor de normalización del uso del euskera.

En tal sentido, se ha revelado la conveniencia de ampliar el número máximo de vocalías correspondientes a personalidades implicadas en los diferentes ámbitos sectoriales de normalización lingüística, elevándolo hasta una cifra, que permitirá atender las necesidades al efecto.

Por otra parte, en cuanto a los miembros del Consejo, será mediante Orden de la Consejera de Cultura como se efectuará el nombramiento efectivo de los representantes no llamados por su cargo, y además a fin de garantizar la efectiva presencia en todas las sesiones, se ha incluido la posibilidad de que ciertos órganos, Instituciones y Entidades, puedan designar suplentes.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez, Jaur-laritzaren Kontseiluak 1999ko urriaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua. – Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren 3.1.9 artikulua honela izatea aurrerantzean:

«3.1. artikulua. – 9.a. – Gehienez ere berrogei bokal. Hizkuntza-normalkuntzaren prozesuan eraginik duten arloetako pertsona ezagunen artean aukeratuko dira bokal horiek. Kultura sailburuak erabakiko ditu bokalen kopurua eta zerrenda, eta Euskal Herriko lurraldeetako ordezkariak izateari begiratuko zaio».

Bigarren artikulua. – Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren 4.1 artikulua honela izatea aurrerantzean:

«4. artikulua. – 1. – 3.1. artikuluko 6, 7, 8 eta 9. idatz-zatietan aipatutako bokalak Kultura sailburuaren Agindu bidez izendatuko dira».

Hirugarren artikulua. – Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriari beste lerroaldi bat eranstea bukaeran:

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Bigarrena. – Euskararen Aholku Batzordeak dekretu honetan ezarritako jarduera-arauak osatzerik izango du. Ezarriko ditu, halaber, batzorde berezi guztien jarduerako arauak.

Bestalde, 3.1 artikuluko 5, 6, 7 eta 8. Idatz-zatietan adierazitako Batzorde Osoko kideek ordezkioak izendatu ahal izango dituzte, erakunde bakoitzak ezargarri dituen arauen arabera. Nolanahi ere, Euskararen Aholku Batzordeak finkatuta dituen edo finka ditzakeen mugak errespetatu beharko dituzte.»

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 5 de octubre de 1999,

DISPONGO:

Artículo primero. – Se da nueva redacción al ordinal 9, del artículo 3.1 del Decreto 156/1996, de 18 de junio, de transformación del Consejo Asesor del Euskera, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 3.1. – 9.º. – Hasta un máximo de cuarenta vocales nombrados entre personalidades de reconocido prestigio en los diferentes ámbitos sectoriales que inciden en el proceso de normalización lingüística. El número y la relación de dichos vocales serán determinados por la Consejera de Cultura, procurándose la presencia de vocales procedentes de los distintos territorios de Euskal Herria».

Artículo segundo. – Se da nueva redacción al artículo 4.1 del Decreto 156/1996, de 18 de junio de transformación del Consejo Asesor del Euskera, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 4. – 1. – Los vocales a que se refieren los apartados 6.º, 7.º, 8.º y 9.º del artículo 3.1 serán nombrados por Orden de la Consejera de Cultura».

Artículo tercero. – Se adiciona un párrafo final a la Disposición Adicional Segunda del Decreto 156/1996, de 18 de junio, de transformación del Consejo Asesor del Euskera, que queda redactada de la siguiente forma:

DISPOSICIONES ADICIONALES

Segunda. – El Consejo Asesor del Euskera podrá completar sus normas de funcionamiento establecidas en el presente Decreto. Asimismo establecerá las normas de funcionamiento de todas las Comisiones Especiales.

Los miembros del Pleno señalados en el artículo 3.1, ordinales, 5.º, 6.º, 7.º y 8.º, podrán, a su vez, designar sus respectivos suplentes conforme a las normas propias que les sean de aplicación, respetando, en todo caso, las reservas y limitaciones que el propio Consejo Asesor del Euskera pudiera establecer, o pudiera hallarse sujeto.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko urriaren 5ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Zk-4174

AGINDUA, 1999ko irailaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) «Trueba de Artxanda» ikastetxe pribatuari Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa irakasteko eta Lehen Hezkuntzako unitateak kentzeko baimena emateko dena.

Bilboko (Bizkaia) «Trueba de Artxanda» ikastetxe pribatuaren entitate titularraren legezko ordezkariak hasiarazitako espedientea aztertu da; Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa irakasteko eta Lehen Hezkuntzako unitateak kentzeko baimena eskatzeko da espedientea.

Espediente horri Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarrean dauden arauak eskatuako agiriak erantsi zaizkio eta gai horretan eskuduntza duten erakundeek eman diote informea.

Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (9ko EAO), unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretua (26ko EAO) eta indarrean dauden eta gai horretan erabilgarriak diren gainerako xedapenak ikusi ondoren, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– 1999/2000 ikasturtetik aurrera, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa irakasteko eta Lehen

DISPOSICIÓN FINAL

Única.– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de octubre de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Nº-4174

ORDEN de 9 de septiembre de 1999, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la impartición del Primer Ciclo de Educación Infantil y la reducción de unidades de Educación Primaria al Centro docente privado «Trueba de Artxanda» de Bilbao (Bizkaia).

Examinado el expediente iniciado por el representante de la entidad titular del Centro docente privado «Trueba de Artxanda» de Bilbao (Bizkaia), en solicitud de autorización para impartir el Primer Ciclo de Educación Infantil y para la reducción de unidades de Educación Primaria.

Resultando que el expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Bizkaia, que se han unido al mismo los documentos exigidos por la normativa vigente y que ha sido informado por los organismos competentes en la materia.

Vistos el Real Decreto 332/1992, de 3 de abril (BOE del 9), sobre autorizaciones de Centros docentes privados para impartir enseñanzas de régimen general no universitarias, el Real Decreto 1004/1991, de 14 de junio (BOE del 26), por el que se establecen los requisitos mínimos de los Centros que impartan enseñanzas de régimen general no universitarias, y demás legislación vigente aplicable en la materia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Se autoriza, a partir del curso escolar 1999/2000, la impartición del Primer Ciclo de Educa-